

2009ko urriaren 7an UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA.

7 Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da, idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

ZINEGOTZIAK : 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA

2.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

3.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

4.- ANTXON GOMEZ LORENTE

5.- NAIARA ESNAL HUEGUN

6.- MAITANE ARRILLAGA ALDALUR

7.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko Aktak onartu .

2009o abuztuaren 6ko Udalbatzako akta, idazkariak idatzitakoak, udalbatzarkideek onartu dituzte eta erabateko adostasunez onartzen dute.

2.- 2010.urterako Taxi tarifen onarpena.

Alkateak jakinarazi ditu Urola Kostako Taxi Batzordeak 2010 urterako proposatutako tarifak. Idazkariak AGITAX-Gipuzkoako taxi-gidarien elkarteak igorritako azterketa ekonomikoa azaldu eta gero adierazten du oinarritzko tarifak berdin mantentzen direla eta aldaketa bakarra 5. tarifa sortzea dela, larunbat gau eta igande zein jai egunei dagokiona .

Tarifak ondoko hauek dira:

1 tarifa

Gutxieneko tarifa:	4,6485.-euro
Kilometroko	0,9920.-euro
Zain egote ordua:	18,9450.-euro

2. tarifa

Gutxieneko tarifa:.	5,5335.-euro
Kilometroko	1,5822.-euro
Zain egote ordua:	29,7775.-euro

5. tarifa

Gutxieneko tarifa:.	6,9168.-euro
Kilometroko	1,9777.-euro
Zain egote ordua:	37,2219.-euro

Partaide guztien aldeko botoekin, hartu da ondorengo akordioa:

“2010. urterako Taxi tarifak onartzea”

3.- 2010. urterako Ordenantza Fiskalak: Hasierako onarpena.

Alkateak hitza hartu eta 2010. urterako Ordenantza Fiskalen proposamenaren berri ematen du, adieraziz eta orohar, zerga eta tasa gutxi batzuk bakarrik jasango dutela aldaketarik: Ura, sanemandu eta arazketa (%6,7), Zabor bilketa (%15), Musika eskola (%1,25) eta Udal igerilekuko eguneko tarifak (%1,62). Baita ere argitzen du, igerilekuko eguneko tarifa honi ñabardura bat eransten zaiola, hau da, arratsaldeko 6etatik aurrera beste tarifa bat aplikatzea: 4-15 urte bitartekoak 1,5 euro eta 16 urtetik aurrerakoak 2,5 euro.

Antxon Gomez-ek erantzuten dio, beraien aurkako botoa emango dutela proposatzen diren Ordenantza fiskal hauei, izan ere eta batipat, zabor bilketaren igoera hori, Zubieta egingo diren azpiegiturak handiak finantzatzera doazelako ehin handi batean, eta sistema horrekin bat egiten ez dutenez, ezin dutela aldeko botorik eman.

Alkateak hitza hartu eta Antxon Gomezeri erantzun dio esanez, Zabor bilketa tasatik jasotzen den diru kopuruaren zati handiena herritarrei ematen zaien zerbitzua ordaintzera doala eta hala ere onartzen duen ikuspegi desberdina izatea eta aurkako botoa ematea.

Proposamen bozketan jartzen da:

BOZKETA : 5 botu aldeko eta 3 kontra.

Beraz, gehiengo absolutu legalarekin hartu da ondoko **AKORDIOA:**

“ 2010. urterako Ordenantza Fiskalen proposamenari hasierako onarpena ematea eta legez agindutako prozedura martxan jartzea.”

4.- Eskari-Galderak.

Ez dago inolako eskaera edo galderarik.

Bilera bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2009ko urriaren 8an.

IGOR ITURAIN IBARGUREN

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA

ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

ANTXON GOMEZ LORENTE

NAIARA ESNAL HUEGUN

MAITANE ARRILLAGA ALDALUR

BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

Idazkari-kontuhartzailea.